

KARMELO AYESTA

Deskribapena: Kike Karmelo Ayestarekin elkarrizketan ageri da Miramar jauregiaren kanpoaldean.

Kike: “Karmelo, zuk euskara arriskuan ikusten al duzu?”

Karmelo: “Nik kontrakoa esango nuke, nik ikusten dut etorkizunean euskera gaur egun baino askozaz indartsuago. Euskaldun asko gaude eta etorkizuna gure esku dago.”

Deskribapena: Kikek Karmelok idatzitako liburua eskutan duela zera esaten du.

Kike: “Orain dela gutxi liburu hau idatzi duzu: “Goza daiteke gehiago. Euskaldun baten hizkuntza-bidaia” eta galdera honekin hasten duzu: zergatik aldatu hizkuntza jokabidea eta euskeraz bizitzen saiatu?”

Karmelo: “Bakoitzak topatu behar dau bere motibazioa, bere arrazoa, ezta? Nire kasuan esate baterako integritatea da motibazioa. Integritatea niretzat da esan eta izan, eta nik diot euskalduna naizela, beraz, badagokit euskeraz hitz egitea, euskeraz bizitzea, ez? Bestela gezurretan egongo nintzateke, ez? Eta beste arrazoi bat izan daiteke esate baterako biologikoa. Nik gure dot euskeraren herriak aurrera egin dezan eta hori lortzeko biderik eraginkorrena euskeraz bizitzea da.”

Kike: “Gure artean euskeraren inguruko uste faltsu asko dagoela aipatzen duzu, adibidez?”

Karmelo: “Bai, ba esate baterako esaten da askotan, edo pentsatzen da, euskeraz hitz egiteko euskaldun perfektoa izan behar dala, eta iritzi horrek kalte handia egin dio euskerari. Euskera txarrena eta traketsena da hitz egiten ez dana.”

Kike: “Energia positiboa, gozatzea, era horretako hitzak askotan aipatzen dituzu liburuan. Gehiago gozatu behar al dugu euskerarekin?”

Karmelo: “Bai, bai, guk erabakitzen dugu zeozegaz gozatu egiten dugun edo bestela sufritu, ez? Bekokia ilun dakegun edo irribarrea, ezta? Eta ikusita dago, ilusioz eta pozez lortzen direla helburuak errazago. Euskera zabaltzeko ere gozatuz, errazago zabalduko dugu euskera.”

Kike: “Eta euskara gehiago erabili nahi duen gure ikusleari zer gomendatuko zenioke?”

Karmelo: “Nik esango nioke euskera erabiltzeko, euskeraz bizitzeko, ezta? Azken finean gure asmoak eta ekintzak bat datozenean sinesgarri egiten gara, jendeak sinestu egiten gaitu, ez? Eta gure eredia errepikatu, ez? Eta euskaldunok euskeraz hitz egiten badugu, eta erabiltzen badugu, kalean ingurukoek ere animatuko dira. Esate baterako, badago esaldi zahar bat dihona “linek euk egin eta gero besteei eragin” ezta? Ba horrek oso ondo laburtzen du hori.”

Kike: “Eta zure bidaia pertsonala nolakoa izan da?”

Karmelo: “Bai, ba bitu nik oain dala urte batzuk finkatu nuen helburu bat, ez? Euskeraz bizitzea zortzi orduz egunean, eta hartu nuen nire agenda eta pentsatu nuen, norekin dut harremana erderaz, ez? Eta saiatu naiz harreman horrei transformatzen, euskerara pasatzen eta orduan hasi nintzen hurbilekokein eta harremana nuen jendearekin harremana euskaratzen.”

Kike: “Eta zenbat ordu egiten zenituen lehenago?”

Karmelo: “Ba lehenago egingo nituen hiru-lau ordu egunean edo horrela, ez? Eta apurka-apurka sartu nintzen euskera elkartean, hasi nintzen euskera hobetzen, sartu nintzen euskerazko munduan eta berez, harreman horrek transformatzen joan dira eta euskerak lekua irabazten die ajendan, eta horrek eraman nau euskera askozaz gehiago erabiltzea egunerokotasunean.”